# MUSIKA-HIZKUNTZAREN PRELUDIOA



MARIA ROSA EGIA

Ediciones Si bemol

# HITZAURREA

Sei urteko neska bat nintzela, musika ikasten hasi nintzen. Ilusioz beteriko ikaslea nintzen. Oso atsegin nuen kantatzea, instrumentua jotzea (nire kasuan pianoa), kantak asmatzea... Hala ere, batzuetan musika-kontzeptuak ulertzea kostatu egiten zitzaidan (inoiz buruz ikasten nituen, besterik gabe). Gainera, liburua irekitzea ez zen erakargarria: ikasgaietako idazkera tradizionalegia zen eta batzuetan eskuz idatzita zeuden. Liburua berria bazen ere, orrialdeek ez zuten ukimen atsegina... Banekien kanta politak zeudela, baina...

Denbora pasatu da: gaurko heziketan ohiko praktika dira kolorearen erabilera eta elementu grafikoen laguntza, ezagutzak barneratzeko eta kontzeptuak asimilatzeko. Umetatik izan dudan ametsa errealitate bihurtu da: ikasteko material zorrotza, baina, era berean, atsegina edukitzea eta bereziki gazteenei zuzendua. Material horrek gonbidapena izan behar du musikara hurbiltzeko, musika ezagutzeko eta ikasteko, baina modu atsegin eta dibertigarrian; aldi berean eraginkorra izan behar du emaitzak ere kontuan hartu behar baititugu.

Urteetako prestakuntzak eta ikasketek ematen duten bermea dut. Baditut ikasketak musika-hizkuntzan, harmonian, konposizioan eta abesbatzan, baita pedagogian ere. Badut hogeita hamar urteko esperientzia irakaskuntzan, horietan zehar etengabeko prestakuntza izan dut eta beste irakasleen eta ikasleen ekarpenez aberastu egin naiz. Haiengandik guztiengandik ikasi dut eta ikasten jarraitzen dut. Haiek guztiak dira proposamen honen parte, eskuetan duzun liburu honen parte: **Musika- Hizkuntzaren Preludioa.** Musika-hizkuntza ikasteko prestatzen gaituen liburua. Honen aurretik izan dira Musika-Teoria liburuak, musika-hizkuntzarako **Teoria Urdina**ren lau aleak.

Liburu hau irakaskuntzan emandako urteen emaitza da, urte horietan zehar nire klaseetarako fitxak landuz joan naiz. Fitxa erakargarriak dira eta helburu argi eta zehatza dute. Animatu naiz pixkanaka-pixkanaka haiek biltzera eta transmititzen errazak diren irizpide argien eta homogeneoen arabera sailkatzera.

Nire esker ona adierazi nahi diot **Si bemol** argitaletxeari, lan honetan sinesteagatik eta izan duen konfiantzagatik, baita argitaratzeagatik beragatik ere.

**Musika-Hizkuntzaren Preludioa** ikasleari fitxa-liburu bat emateko helburuaz dago eginda. Liburu ikusgarria da, ia testurik gabea, eta honako gai hauetan dago banatuta: udazkena, negua, inauteria, zinema, udaberria eta uda.

Ez da honen asmoa ikasgelako jarduera zuzentzea edo antolatzea. Bere helburua da idatziz laguntzea profesionalak azaldu dituen kontzeptuak ulertzen.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet bai "Andrés Isasi" Musika Eskolari proiektu hau errazteagatik, bai Gorkari bere egonarria eta laguntzagatik.

# AURKIBIDEA

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 | | | **MUSIKA IKASTEKO POZTASUNA**<br>**Pentagrama / Lerroak.**<br>Margotu lerroak adierazitako koloreaz. | | | |
| 12 | | | **LEHEN PAUSOAK**<br>**Pentagrama / Tarteak.**<br>Margotu tarteak adierazitako koloreaz. | | | |
| 13 | UDAZKENA | | **UDAZKENEKO HOSTOAK**<br>**Sol klabea.**<br>Birpasatu sol klabeak adierazitako koloreaz. | | | |
| 14 | | **SOLDADUA**<br>**Sol nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 15 | | **SOL Nota**<br>Birpasatu arkatzez. | | | | |
| 16 | | **MIKROSKOPIOA**<br>**Mi nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 17 | | **MI nota**<br>Birpasatu arkatzez. | | | | |
| 18 | | | | **PERRETXIKOEN HERRIA**<br>**Diktaketa melodikoa: (sol, mi)**<br>Zein nota entzuten dira?: Perretxiko gorriarenak ala urdinarenak? Birpasatu. | | |
| 20 | | | | | **UMEEN KONTZERTUA**<br>**(Praktika: sol, mi)**<br>Inguratu sol guztiak gorriz eta mi berdez. | |
| 21 | | | **EURIAREN SOINUNA**<br>**Beltza ♩**<br>Birpasatu beltzak margoz. | | | |
| 22 | | | **PRAKTIKA ♩ (sol, mi)**<br>1) Koloreztatu beltz handia .<br>2) Birpasatu pentagramako sol klabea eta beltzak arkatzez. | | | |
| 23 | | | **PRAKTIKA ♩ (sol mi)**<br>1) Birpasatu:<br>- Sol klabea arkatzez.<br>- sol nota beltzak margo gorriz.<br>- mi nota beltzak margo berdez.<br>2) Idatzi beltz bakoitzaren azpian bere izena. | | | |

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 24 | | | | | | **LANDAREEN KONTZERTUA**<br>**Haize-instrumentuak**<br>Ezabatu lekuz kanpoko instrumentua eta koloreztatu besteak. |
| 25 | | | **OSTADARRAREN ISILTASUNA**<br>**Beltz isilunea** 𝄽<br>1) Koloreztatu beltz isilune handia.<br>2) Birpasatu pentagramako sol klabea eta beltz isiluneak arkatzez. | | | |
| 26 | | | | **INTXAURRETAKO SOINUA**<br>**Diktaketa erritmikoa**<br>♩ 𝄽<br>Zein nota entzuten dira?:<br>Intxaur ilunekoak ala argikoak? Birpasatu. | | |
| 28 | | | **BIKOTEKA**<br>**Kortxeak** ♫<br>Birpasatu kortxeak margoz. | | | |
| 29 | | | **PRAKTIKA** ♫ **(sol, mi)**<br>Birpasatu pentagramako sol klabea eta kortxeak arkatzez. | | | |
| 30 | | **DOMINA**<br>**DO nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 31 | | **DO nota**<br>Birpasatu arkatzez. | | | | |
| 32 | | | | | **UDAZKENAREN HOSTOAK**<br>**(Praktika sol, mi, do)**<br>Idatzi notaren izena hosto bakoitzean. | |
| 34 | | | | **BUSTI ZAITEZ**<br>**Diktaketa erritmikoa**<br>♩ 𝄽 ♫<br>Zein nota entzuten dira?:<br>Euritako gorriarenak, berdearenak ala urdinarenak?<br>Koloreztatu dagokion euritakoaren kirtena.<br>**Diktaketa melodikoa:**<br>**(sol, mi, do)**<br>Zein notak entzuten dira?:<br>Euritako gorriarenak, berdearenak ala urdinarenak?<br>Koloreztatu dagokion euritakoaren kirtena. | | |
| 36 | | | **PRAKTIKA** ♩ 𝄽 ♫ **(sol, mi, do)**<br>Birpasatu:<br>-Beltza, kortxeak eta isilunea margoz.<br>-Pentagraman dauden elementu guztiak arkatzez. | | | |

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 37 | | | | | | **ANIMALIAK KONTZERTUAN**<br>**Hari-instrumentuak**<br>Ezabatu lekuz kanpoko instrumentua eta koloreztatu besteak. |
| 38 | | **SAREA**<br>**Re nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 39 | | **RE nota**<br>Birpasatu arkatzez. | | | | |
| 40 | | | | | **HITZAK ETA NOTAK ("re" silaba duten hitzak)**<br>Birpasatu re "*silaba-nota*" duten hitzak. | |
| 41 | | | **PRAKTIKA ♩ 𝄽 ♫**<br>**(sol, mi, do, re)**<br>Birpasatu pentagraman dauden elementu guztiak arkatzez. | | | |
| 42 | NEGUA | | | | **KOLOREZKO JERTSEAK (Matematika musikala ♩ 𝄽 ♫)**<br>Zenbat balio dute umeen alboko irudiek? Koloreztatu bakoitza dagokion koloreaz. | |
| 44 | | | | | **APAINDU GABONETAKO ZUHAITZA**<br>Marraztu zuhaitzeko pentagrametan eskatzen diren "nota-bolak." | |
| 45 | | | | **OPARIAK**<br>**Diktaketa erritmikoa ♩ 𝄽 ♫**<br>Zein nota entzuten dira?: Kutxa gorriarenak ala urdinarenak?<br>Koloreztatu dagokion kutxako estalkia.<br>**Diktaketa melodikoa (sol, mi, do, re)**<br>Zein nota entzuten dira?: Kutxa gorriarenak ala urdinarenak.<br>Koloreztatu dagokion kutxako estalkia. | | |
| 46 | | **FABRIKA**<br>**Fa nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 47 | | **Fa nota**<br>1) Birpasatu guztia arkatzez.<br>2) Bigarren pentagraman idatzi notaren azpian bere izena . | | | | |

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 48 | | | | | **ELURRA MARA-MARA**<br>Elur-maluta bakoitzak nota bat dauka.<br>Idatzi bere izena azpian. | |
| 49 | | | **PRAKTIKA ♩ 𝄽 ♫**<br>**(sol, mi, do, re, fa)**<br>-Birpasatu guztia arkatzez.<br>-Kopiatu dena beheko pentagraman. | | | |
| 50 | | | | **ESKULARRUETAKO SOINUA**<br>**Diktaketa melodikoa (Do, re, mi, fa, sol)**<br>Zein nota entzuten dira?: Eskularru laranjarenak ala berdearenak.<br>Koloreztatu dagokion eskularruaren eskumuturra. | | |
| 52 | | | | **TXANOAK**<br>**Diktaketa erritmikoa ♩ 𝄽 ♫**<br>Zein nota entzuten dira?: Txano arrosarenak ala txano urdinarenak?.<br>Birpasatu dagokion irudia. | | |
| 54 | | | | | | **HORI DA ERRITMOA!**<br>**Perkusio-instrumentuak**<br>Ezabatu lekuz kanpoko instrumentua eta koloreztatu besteak. |
| 55 | INAUTERIAK | **LAMIA**<br>**La nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 56 | | | | | **AUPA INAUTERIAK!!**<br>**Koloreztatu Inauteria**<br>Bukatu koloreztatzen. | |
| 57 | | **La nota**<br>1) Birpasatu guztia arkatzez,<br>2) Bigarren pentagraman idatzi notaren azpian bere izena. | | | | |
| 58 | | | | | **PAILAZOAREN PUXIKAK**<br>**(Praktika: sol, mi, do, re, fa, la)**<br>Koloreztatu puxikak adierazten den koloreaz. | |

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 59 | | | **PRAKTIKA**<br>**Kaligrafia ♩ 𝄽 ♫**<br>**(sol, mi, do, re, fa, la)**<br>Amaitu kopia lehena bezala izan dadila. | | | |
| 60 | ZINEMA | | **LEHEN EMANALDIA**<br>**Zuria 𝅗𝅥**<br>Birpasatu:<br>-Zuri handiak margoz.<br>-Pentagramakoak arkatzez. | | | |
| 61 | | | **PRAKTIKA**<br>**Kaligrafia ♩ 𝄽 ♫ 𝅗𝅥**<br>**(sol, mi, do, re, fa, la)** | | | |
| 62 | | | | | **FOTOGRAMAK**<br>**(Matematika musikala ♩ 𝄽 ♫ 𝅗𝅥)**<br>Egin fotograma bakoitzeko irudien batuketa eta kartelak kontuan hartuta, margotu dagokien koloreaz. | |
| 64 | | | | **3DKO FILMA**<br>**Diktaketa melodikoa**<br>**(sol, mi, do, re, fa, la)**<br>Zein nota entzuten dira?: Gorriarenak ala urdinarenak<br>Koloreztatu gaineko zirkulua dagokien koloreaz. | | |
| 65 | | | | | | **AUPA NESKA-MUTILAK!!!!**<br>**Euskal-instrumentuak**<br>Ezabatu lekuz kanpoko instrumentua eta koloreztatu besteak. |
| 66 | | **DORREA**<br>**Do' Nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| 67 | | **Do' nota eta DO nota**<br>Birpasatu eta idatzi noten izenak. | | | | |
| 68 | UDABERRIA | | | | **MARIGORRIEN IBILALDIA**<br>**(Praktika do, re, mi, fa, sol, la, do')**<br>Idatzi marigorri bakoitzaren barruan | |
| 69 | | **Praktika: DO, do'**<br>Birpasatu :<br>DO baxua berde ilunez<br>eta do' altua berde argiz. | | | | |
| 70 | | | **PRAKTIKA ♩ 𝄽 ♫ 𝅗𝅥 (DO eta do')**<br>Birpasatu arkatzez. | | | |

| OR. | ZEHARKAKO GAIAK | NOTA MUSIKALAK | MUSIKA-ELEMENTUAK | DIKTAKETA | MUSIKA-DENBORAPASAK | INSTRUMENTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **71** | | | | | **DORLETA TXIMELETA (Matematika musikala ♩ 𝄽 ♫ )**<br>Batu eta koloreztatu . | |
| **72** | | | | **TXIO-TXIO Diktaketa erritmikoa ♩ 𝄽 ♫ ♩**<br>Zein nota entzuten dira?: Txori gorriaren albokoak ala urdinarenak. Koloreztatu dagokien koloreaz. | | |
| **73** | | | | | | **GUZTIOK ABESTEN DUGU. Giza-ahotsak**<br>Ezabatu lekuz kanpoko instrumentua eta koloreztatu besteak. |
| **74** | | **SIRENA Si nota**<br>Birpasatu margoz. | | | | |
| **75** | | **Si nota**<br>Birpasatu arkatzez. | | | | |
| **76** | | | | | **ITSASOAREN HONDOAN (Práctika: Do, re, mi, fa, sol, la, si, do’)**<br>Idatzi noten izenak arrain bakoitzaren azpian. | |
| **78** | UDA | | | **MUSIKA HONDARTZARA Diktaketa melodikoa (Do, re, mi, fa, sol, la, si, do’)**<br>Zein nota entzuten dira?: Ohial urdinarenak ala horiarenak?.<br>Birpasatu dagokien laukizuzena. | | |
| **80** | | | **PRAKTIKA: (Do, re, mi, fa, sol, la, si, do’)**<br>Birpasatu. | | | |
| **81** | | | | | **AIA. ITSAS TXAKUR ALAIA (Matematika musikala)**<br>Batu eta margotu. | |
| **82** | | | | | **HITZAK ETA NOTAK (“Silaba-nota ’ duten hitzak )**<br>Eratu eta birpasatu. | |
| **83** | | | **GOGORATU DAKIZUNA**<br>Birpasatu eta koloreztatu. | | | |
| **84** | | | | | **KURTSO AMAIERA FESTA**<br>Koloreztatu. | |

# PENTAGRAMA



# LERROAK

1 —— . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2 —— . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

3 —— . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

4 —— . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

5 —— . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

# ISILUNEA









# PRAKTIKA




dorrea




DOMINA

